

ZERBIKALGIA, DORTSALGIA ETA LUNBALGIA

Zerbikalgiak, zerbikaletako mina esan nahi du. Jatorri asko izan ditzake eta kasu gehienak ez dira larriak izaten. Zerbikaletako muskuluen gainkargak sortua izan daiteke, edota jatorri traumatikoa (kotxe istripua adibidez) duen lesio neuromuskularrak.



Dortsalgiak, dorsa aldeko mina esan nahi du, alde bakarrekoa zein bi aldetakoa izan daiteke. Bizkarreko goiko aldean igartzen da mina, eskapula artean nagusiki. Egunaren amaieran areagotzen da mina.

Lunbalgiak, lunbar aldeko mina esna nahi du. Hau da, azken saihetsean hasi eta gluteora arte dagoen espazioan sortzen da eta beheko gorputz adarrera erradiatu daiteke. Mina, ornoek, nerbio adarrek zein inguruko muskulaturak, bai abdominal, lunbar zein zoru pelbikoak sortua izan daiteke. Jatorriaren arabera, sintomatologia ezberdina izango da.

